


OCW

IKASTEKO MATERIALA: 6.GAIA FAMILIA-ORIENTAZIOA



designed by freepik.com

6.guia. Familia-orientaziorako praktika onak zerbitzu publikoetatik eta lanerako orientazioa

- 6.1.Familia-orientaziorako praktika onak zerbitzu publikoetatik
- 6.2.Lanerako orientazioa
- 6.3. Erreferentzia bibliografikoak

IKASKETA-EMAITZAK:

Zerbitzu publikoetatik familia-orientaziorako praktika onak zein diren ezagutzea

Familia-orientazioaren lanerako zenbait orientazio

6.gaia. Familia-orientaziorako praktika onak zerbitzu publikoetatik eta lanerako orientazioa

6.1.Familia-orientaziorako praktika onak zerbitzu publikoetatik

Jarraian, familiei gizarte zerbitzuetatik laguntzeak dituen abantailak azalduko dira eta baita gizarte zerbitzuetatik aurrera eraman daitezkeen praktika onak. Ondoren, erresilientziak familia-eskuhartzean ekarri duen aldaketa ikusiko dugu. Gero, familiekin aliantzak egitearen garrantzia azalduko da eta azkenik, etxeko elkarrizketak egiten direnerako praktika onak azalduko dira.

Familiei gizarte zerbitzuetatik laguntzeak abantailak ditu [1] eta hauexek dira, besteak beste:

- Aurrehartzea indartzen da eta familia-egoera desberdinen detekzioa. Egoera hauetako asko garaiz detektatzea garrantzitsua izan daiteke aurrerago babesgabetasunean ez erortzeko.
- Esku-hartze eraginkorragoak gauzatu daitezke, hurbileko arreta emanik.
- Baliabide komunitarioen planifikazio, gestio eta koordinazioa hobetu daiteke, adingabea babesteko koordinatutako ekintzak planteatuz.
- 3. mailako adingabearen babes-sisteman (Foru Aldundian) lan-karga gutxitu daiteke (familia-harrera, zentro erresidentzialak...)
- Sistemaren finantziakzioa hobetzen da, administrazio eta zerbitzu anitzen fondoak biltzen baitira (Gazteria saila, Hezkuntza saila...)

Udalerrri mailako gizarte zerbitzuetatik dauden planek familien ongizatea sustatzeko neurri psiko-hezitzaileak garatzea komeni zaie. Neurri horietan zerbitzuak, programak eta ekintzak jarri behar dira. Neurri horiek, familietan lotura afektibo onak, ingurune estrukturatuak, estimulazioa eta babesa ikasketetan, haurrek egiten dutenarekin interesa, haurrak kompetenteak direlaren aitortzea eta biolentziarik gabeko hezkuntza sustatu beharko lukete. Jarraian zerbitzuak eta programak zehaztuko dira. Zerbitzuak ondo hauek izan daitezke: Elkarguneak; familia-bitartekaritza; gizarte zerbitzu espezializatuak informazioa, asesoramendua eta eskuhartzea eskaintzen dutenak emakumeentzako, adingabeentzako eta familiarentzako; eguneko zentroak, aisialdiko zerbitzuak, udalaren menpe dauden haur-eskolak, ludotekak, *ciberaulak*, etxeko-laguntza zerbitzuak, menpekoak diren pertsonen zaintzaileentzako arnaguneak. Programei dagokionez, ondoko hauek izan daitezke: Kale-heziketa arrisku psiko-sozialean dauden adingabe eta gazteentzat; hezkuntza-ekintza eskolaz kanpokoak, tailerrak familia-bizitzan erantzunkizun partekatua burutzeko (*Co-responsabilidad* delakoa); gurasoen hezkuntza gurasotasunean, telefono-asistentzia emakume, guraso eta adingabeentzako; esku-hartze psiko-hezitzailea arriskuan dauden adingabeentzako, nerabeentzako...; familia-eskola-auzoaren kooperazio eta integrazio programak; denbora-bankuak (Espainia mailako zerbitzu eta programa hauen adibideak, dokumentuaren 27. orritik aurrera dituzu).

Gainera, zenbait estrategia badira zerbitzu publikoetatik gurasotasun positiboaren aurrehartzea eta/edo promozioa egiteko [2], hala nola, eskoletako irakasle eta ikasleentzako formakuntza-programak umeen eskubideen inguruan, irakasleak eta gizarte zerbitzueta teknikiariak aldaketa-eragile izan daitezen programak bultzatzea, orientazioko puntu irekiak auzoetan, irrati/telebista programa jarriak, hezkuntza eta aisialdi konstruktiboko gidak osotzea... etab. Dokumentu berean ere aipatzen dira familia esku-hartzea egiteko teknikariek jakin beharreko puntu garrantzitsu batzuk, hemen dituzu zerrendatuta:

- Gurasoei edo beste figura batzuei diseinura eginiko trajea egiteko laguntzeko prest daudela jakin behar dute
- Esku-hartzearen helburuak familiaren behar eta kezkekin bat joan behar dira eta haurren ongizatea eta ziurtasuna bermatu behar duen lehentasunak jarriko dira
- Familiekin egingo den lanaren plan kontsentsuatu bat ezarri, helburuak, egitekoak, baliabideak eta denborak ezarri
- Helburu pertsonalak jarri gain harremanetako helburuak jarri (adibidez, autonomia fomentatzeko sare informalak handitu)
- Beste profesionalekin partekatutako errejistro bat eraman, esku-hartzean egin izandakoak eta baliabideak apuntatzeko
- Familiarengana batasun sentimentua eta baterako lana bultzatu eta bere konpromezu formala eskatu
- Familiei aldaketarako dituzten ahalmenak aurkitzen lagundu eta hauek potentziatu
- Garapen aukerak sortu, familiaren komunitate-integrazioa zainduz
- Aldaketa txikiak identifikatu: hurrei buruzko komentario positibo bat, hartu den erabaki zehatz bat... eta familiei hauek ezagutu ditzaten lagundu
- Deribazioak sekuentziatzen jakin, dena aldiberean egiteak saturatu egiten duelako eta esku-hartzearen porrota ekarten duelako
- Familiei eskatu zer egin dezaketean, kontuan izanda bere baliabideak eta gaitasun erresilienteak

Azken puntu garrantzitsua **erresilientzia** da eta merezi du gai honi tartetxo bat egitea. [3] dokumentuan agertzen den Cyrulnik-ek (2002) arabera, hazkuntza-eta garapen-prozesu nahiko sanoa eta normala mantentzeko gaitasuna da, nahiz eta bizi-baldintzak kontrakoak izan. Erresilientziak ez du zauri ezina izatea inplikitzen; erresiliente izan zaitezke arlo batekiko eta ez beste batekiko (erresilientea familian baina ez eskolan adibidez). Erresilientzia gaitasunak harremanekin zerikusia du eta entrenatu daiteke. Familiako Erresilientzia eta Gurasotasuneko Erresilientzia kontzeptuak definitzen dira argitalpen honetan. Familiako Erresilientzia prozesu dinamikoa da, inguruneko mehatxu eta erretoekiko positiboki erreakzionatzen laguntzen diona eta aurkitzen dituen krisietatik indartuta ateratzen laguntzen diona. Familiak nola leuntzen duen estresa, esperientzia nola manejatzen duen, eraginkortasunez berrantolatzen denaren arabera eragina izango du familia osotzen duten partaide guztietan eta familia-unitatearen superbibentzia eta ongizatean. Badirudi, dokumentuan azaltzen den Walsh egilearen arabera, garrantzitsuak direla familiako erresilientzia prozesuetan: sinismen-sistemak (perspektika positiboa izatea, helburuak bilatzea...), antolaketa-patroiak (kohesioa, konpromezua, gizarteko baliabideak mugitzea...) eta komunikazio prozesuak

(argitasunez eztabaidatzea, arlo praktikoak eta emozionalak...). Gurasotasuneko Erresilientzia prozesu dinamikoa litzateke, gurasoei euren seme-alabekiko harreman babestzailea eta sentikorra garatzea ahalbidetzen diena, nahiz eta tratatu txar-portaeren potentziatzailea den ingurunean bizi.

Erresilientzia kontzeptuari esker, familiekin esku-hartzeak egiten dituzten profesioaletan ikuspuntu aldaketa bat egon da

- Egoera problematikoetatik pasatzen diren familiak, orain arte disfuncionalak, 'multiproblema' edo desestruturatuak deitu direnak beste modu batean ikusten dira gaur egun. Batzuetan berez berez desplegatu ditzakete arazoak gainditzeko trebezia naturalak.
- Gaur egun ez da pentsatzen familia sanoen ezaugarria arazorik eza dela, baizik eta familia hauek arazo hauek gainditzeko eta erresolbatzeko gaitasuna dutela onartzen da.
- Arrisku psiko-sozialean dauden familiak errekuiperatu daitezke, euren puntu indartsuak eta potentzialtasunak deskubrituz. Gurasotasuneko programei esker, potentzialtasun hauek landu ahal izango dira, hau da, gurasotasuneko trebezien entrenamendu bidez lortu dezakete arazoetatik ateratzea.
- Trebeziak lortzen joateko, eredu erresilienteak erabiliko dira. Kontrako ingurunetatik aurrera egin izan duten eredu erresilienteak izango dira erreferenteak, eta ez familia eredu ideialak, ez eta profesionalaren familia-esperientzia eredu.

Familiekin lan egiten denean, aliantzak lantzeak berebiziko garrantzia du. Izan ere, [4] dokumentuaren arabera, aliantzak esku-hartzean egiten den zeregin guztiekin zerikusia duelako eta baita, zerikusia duelako, familiak profesionalarekin duen harremanarekin, familiako kideek euren artean duten harremanarekin eta esku-hartzean parte hartzen duten profesional guztiekin. Azken batean, esku-hartzearen arrakastaren funtsezko giltza da. Familiekin aliantzak ezartzeko oztopoak izan daitezke, oztopo sozialak eta kulturalak, gainditzeko zailak diren mesfidantzak, pobreziarekin harremandutako problemak, familiek euren barnean dituzten konfliktuak, profesionalen arteko konfliktuak, etab. Escudero-k dioskunez, familiarekin dagoen aliantza-mota ezagutu daiteke SOATIF eredu jarraituz, lau dimentsio hartzen direlarik kontuan. Dimentsio bat, esku-hartze prozesuarekin dagoen lotura edo 'engantxea' da; bigarren dimentsioa, esku-hartze sistemarengan konfidantza; hirugarren dimentsioa, erabiltzaileak profesionalarekin egiten duen konexio emozionala da; eta laugarren dimentsioa, familiarekin helburua partekatzearen zentzua da. Lehen dimentsioa da agian errazen ikusten den dimentsioa. Eta, hezitzaileak 'engantxe' hau ahalbidetu behar du. Horretarako, garrantzitsua da bezeroak, helburuak finkatzerakoan parte hartzea; garrantzitsua da baita, bezeroak esku-hartzeko zeregin espezifikotan partehartzea eta bezeroak berak lan erritmoa markatzea (saioen maiztasuna eta iraupena adibidez). Eta, azkenik, garrantzitsua da, bezeroaren partetik egiten diren aurrerapauso txikiak erreforzatzea.

[4] dokumentuarekin jarraituz, familiekin esku-hartzeak egiten direnean, elkarrizketak euren etxeetan egiteak, baditu bere abantailak eta desabantailak, bulego batean egiten direnekin konparatuz. Abantailen artean, familia ziurrago sentituko da, lan-harreman ona ezartzen bada, familia irekiagoa eta naturalagoa agertuko da. Bestalde, denbora gutxian familiak nola funtzionatzen duen ikusi ahal izango da (adibidez, gurasoek disziplina nola erabiltzen duten, denbora eta espazioa nola antolatzen duten, zein den klima emozionala, haurrek zein ekintza egiten dituzten, eta abar. Desabantaila nagusia, aldiz, familiarekiko izaten den harremana definitzea kosta egiten da, hau da, etxeko bixitek duten funtzio profesionala eta bixiten helburua argi uztea kostatzen den zerbait izaten da.

Bestalde, dokumentuarekin jarraituz, etxeko bixita batean elkarrizketa eraginkorra izan dadin zenbait elementu tekniko erabiliko ditugu. Hona hemen:

Batetik, denboraren erabilpena, bestetik, espazioaren erabilpena, portaeren kontrolerako arauak eta bukatzearen errituala.

Denboraren erabilpena: Nagusiki hitzorduak hasi eta bukatzeari buruz ari gara. Oso garrantzitsua da hitzordua ondo finkatzea, galdetzea ordu zehatz batean zer egiten duten, papertxo batean idatziz jartzeko eskatzea nortzuk egoten diren/egon behar diren zein ordutan eta beti insistitu behar da aldaketaren bat badago jakinarazteko mesedez. Garrantzitsua izaten da baita familiari esatea zenbat iraungo duen bixitak eta zein egotea nahi den, bestela 10-15 minutura familiakoak desagertzen (joaten) hasi ditezke. Profesionalak ere ezin badu, abixatu egingo du alde aurretik.

Espazioaren erabilpena: Hezitzailea asertiboa izango da familiaren etxean bilerak egiteko aukeratzen den tokiarekiko. Eskatu daiteke toki lasai bat, seme-alabaren jostailua ekartzeko eta aldameneko gelan egotea komenigarria bada... Lehen bixitan toki honek funtzionatu badu, hurrengoan ere tokia errepikatu egingo da. Bestalde, behaketaren bidez hainbat zehaztasun ikusi ditzakegu. Gerta daiteke baita, etxetik kanpo dagoen beste toki batean bilera egin beharra.

Portaeren kontrolerako arauak: Etxeko elkarrizketa oztopatuko duten portaerak badaude, familia hezitzaileak eskatu dezake arau batzuk egotea: 'Iruditzen zaizue zuen etxean biltzen garenean telebista itzalita eukitzen baduzue?' edo 'Zer iruditzen etxean bixita egiten dizuedanean erre gabe bada... edo leihoa irekita?'

Bukatzearen errituala: Harreman profesionala dela erakusteko ondo egon daiteke etxeko bixita batean notak hartzea, elkarrizketaren arauak gogoratzea, audioa grabagailua bat erabiltzea, etab. Bukaera garrantzitsua da eta konklusioa idaztea komenigarria. Konklusio horretan, hartu diren konpromezuak eta zereginak idazten dira, askotan akta-laburpen bat bezala. Batzuetan beharreako izan daiteke familiei esatea diskutitu duten gaia ez ukitzea hurrengo elkarrizketara arte.

6.2. Lanerako orientazioa

Ikasgai honetan ikasten ari zaretena oinarritzat hartuta, pentsatu ezazu pixkat zein den gehien gustatu zaizun eremua. Eremuak modu askotan sailkatu daitezke. Hemen duzu sailkapen bat:

Gizarte zerbitzuak (babesgabestasuna)

Gizarte zerbitzuak (beste gai batzuk)

Berdintasuneko teknikaria

Familia-aniztasuna

Familia-bitartekaritza eta deribazio judizial bidezko familia elkarguneak

Familia-orientazioa

Pentsatu eta kuxkuxeatu eremu horretan lan egiteko zein formakuntza osagarri behar duzun. Jarraian duzu proposamen bat.

Gizarte zerbitzuak (babesgabestasuna)

Gizarte zerbitzuetan (babesgabestasuna) aritzeko interesgarria izan daiteke EHUK eskaintzen duen berezko titulua 'Babesgabetasun Egoeran dagoen Haurtzarora, Egoitza eta Familia Harrera eta Adopzioa' deiturikoa. EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Gizarte Hezkuntza graduaren eta Agintzari elkartearen artean ematen dute berezko titulu hau. (jarraitu esteka:

<https://www.ehu.es/eu/web/bilboko-hezkuntza-fakultatea/master-propio-en-infancia-en-situacion-de-desproteccion>).

Gizarte zerbitzuak (beste gai batzuk)

Gizarte zerbitzuak (beste gai batzuk) Euskadin zertan jarduten dutenaren irudi argiago bat eukitzeko liburu hau begiratzea aholkatzen dut (doan lortu dezakezu errejistratuz gero. Jarraitu esteka: <https://jakinbai.eus/edukiak/gizartean-partehartzeko-testuingurua>) Begiratu bertako 45-58 orriak.

Berdintasuneko teknikaria

Berdintasuneko teknikari bezala jarduteko interesgarria izan daiteke Lanbidek eskaintzen dituen 'Promoción para la igualdad efectiva de mujeres y hombres' ikastaroak egitea (jarraitu esteka:

http://apps.lanbide.euskadi.net/apps/CE_DETALLE_CERTIFICADO?LG=C&ML=FORMEN1&MS=Fcaa&IDCE=SSCE0212&ORGN=). Kontuan izan baita Instituto de la *Mujer*-ek eskaintzen dituenak *online* eta EHU-ren berezko titulua den 'Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra: Berdintasun Agentek' (jarraitu esteka: <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasunmaster>).

Familia-aniztasuna

Familia-aniztasunean aritzeko ondo egon daiteke arlo desberdinetan jarduten duten familia elkarten direktorioak arakatzea eta osagarria izan daitekeen formakuntza egiten joatea. Adibidez krisiak dauden familia interesatzen bazaizkizu interesgarria izan daiteke direktorioak bilatzea (Kidetza adibidez) eta formakuntzan sakontzea. EHU-k badu adibidez 'Dibortzioa eta banaketa' deituriko berezko titulua, Nortasuna, Psikologia Fakultateko Balioespena eta Psikologia Tratamendua Sailak eskainia. (jarraitu esteka: <https://www.ehu.es/eu/web/divorcio/aurkezpena>).

Familia-bitartekaritza eta deribazio judizial bidezko familia elkarguneak

Familia-bitartekaritzaren eta deribazio judizial bidezko familia elkarguneak teorikoki gainbegiratu ditugun arren, memoria desberdinak ikuskatzea interesgarria izan daiteke. Adibidez justicia.eus-en atarian agertzen direnak: (jarraitu esteka: <https://www.justizia.eus/liburutegia/justizia-administrazioa>).

Familia-orientazioa

Familia Orientazioa kontzeptu zabala den arren, polita izan daiteke beste erkidego batzuetan *Centros de Apoyo a las Familias* (CAF) delako zentroek burutzen dituzten ekintzak gainbegiratzea. Erantzunkizuna Administrazio Zentralaren eta Erkidegoen artekoa izaten da. Zerbitzu hauen helburua familien bizitza-kalitatea hobetzea izaten da. Begiratu adibidez Errioxako hau (ez dute gizarte hezitailerik) (jarraitu esteka: <https://centrodeapoyoalafamilia.larioja.org/>) eta Madrilgo *Centro de Apoyo a la Familia* (ez da ageri gizarte hezitzailearen figura, baina bai bitartekaritzaren ezagutzak euki beharra). (jarraitu esteka: <https://www.madrid.es/portales/munimadrid/es/Inicio/Infancia-y-familia/Centros-de-Apoyo-a-las-Familias-CAF-/?vgnnextfmt=default&vgnextoid=6926df919b149410VgnVCM2000000c205a0aRCRD&vgnnextchannel=2fbfb7dd3f7fe410VgnVCM1000000b205a0aRCRD#>).

6.3. Erreferentzia bibliografikoak

- [1] RODRIGO, M.J., MÁIQUEZ, M.L. & MARTÍN, J.C. Parentalidad positiva y políticas locales de apoyo a las familias [online]. Madrid: Federación Española de Municipios y Provincias, 2010 [Kontsulta: 2019-05-16]. Eskuratua: <https://www.msccbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/docs/folletoParentalidad.pdf>
- [2] RODRIGO, M.J., MÁIQUEZ, M.L. & MARTÍN, J.C. Buenas prácticas profesionales para el apoyo de la parentalidad positiva [online]. Madrid: Federación Española de Municipios y Provincias, 2010 [Kontsulta: 2019-05-16]. Eskuratua: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/parentalidad_positiva/es_parentpo/adjuntos/12.%20BuenasPractParentalidadPositiva.pdf
- [3] RODRIGO, M.J., MÁIQUEZ, M.L. & MARTÍN, J.C. La educación parental como recurso psicoeducativo para promover la parentalidad positiva. [online]. Madrid: Federación Española de Municipios y Provincias, 2010 [Kontsulta: 2019-05-16]. Eskuratua: <https://www.msccbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/docs/eduParentalRecEducativo.pdf>
- [4] ESCUDERO, V. Guía práctica para la intervención familiar [online]. Junta de Castilla y León, 2010 [Kontsulta: 2019-05-16]. Eskuragarri: http://uiicf.net/wp-content/uploads/2014/06/Gu%C3%ADaPr%C3%A1cticaIF_VEscudero.pdf